

Oinherrik dakarren begirada aldaketa

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Doraemonen ate magikoa izanen bazenu, nahi duzun lekuan ateratzeko, non aterako zinateke?». «Xagun», erantzun dit seguru. Ondoko herriko liburu eta jostailu denda da Xagu, eta bertako kotxe eta kamioiak izugarri gustatzen zaizkio. Biok lasai egiteko planik ederrenetakoa bertan egunkaria eta ibilgailuren bat hartu eta ondoko kafetegian gosaltzea da. Gero han bertan dagoen parkean pixka bat ibili, plazako dendan argazki batzuk inprimatu, eta etxerakoan, ibilgailu berria bertze gurpildunei aurkeztu, eta irudi, margo eta hitzekin albuma sortzen dugu.

Plan bereziak antolatzen ditut batzuetan, ikusgarriak, eta bueltan, «zer gusta-

tu zaizu gehien?» galdetzen diodanean, badakit harrituko nauela, eta erantzuna «bidean ikusi dugun katua» izan daitekeela. Ideia hori bera aipatu zuen Txusma Azkonak berriki Bergaran egin den Oinherriren batzarrean, Txusma izeneko lehendakaria duen elkarteak ez duela hagitx serioa ematen aitortzearekin batera. Are gutxiago, Txatxilipurdi, Katxi-porreta, Kokoriko edota Plisti Plasta partaide izanda. Ezin da serioa izan, ez, ekitaldia “harri, orri, ar” jolasean dena emanaz bukatzen duen egitasmoa, bazkideak elkarri sorbaldatak helduz irabazle animatzen oihuka, denen artean tren bat osatuz, Seminaixo atarian, “txu-txu!”. Zer da haurtzararen kultura hedatzearen zorakeria hori?

Duela 12 urte ekin zioten bideari, Joxe Mari Auzmendi zenaren eskutik, haur eta nerabeen hezkuntza bertze modu batera egin zitekeenaren ametsaren atzetik abiatu zirenean. Euskara, aisia, hezkuntza eta kulturaren ari diren eragileekin batera, herri hezitzaileen filosofia eta praktika Euskal Herriko hainbat herritara jaisten hasi ziren, eta geroztik ederki sendotzen eta zabaltzen ari da Herri Hezitzaileen Sarea.

Begirada aldaketa bat dakar Oinherrik, haurren parte-hartzea sustatu nahi baitu, ez etorkizuneko herritar gisa, ez parke bat diseinatzeko bakarrik, baizik eta edozein gai lantzen hasteko haur eta nerabeekin, beraien egiteko moduekin, gu ezin baikara haien lekuan jarri. •

Monagillo

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Hamar-hamaika urte izango genituen herriko apaizak errekrutatu gintuenean. Kuadrillako zortzi izan ginen herriko eliza nagusian laguntzaile hasi ginenak. Apaizentzat kontu serioa zen nerabeen lan pastoralean zerbitzua eta espiritualtasuna lantzea, baina gu inozo totalak ginen, eta eliza jolas eremu berri bihurtu zen.

Mezak laguntzen genituen, mahaia eta liburuak prestatu, binajerak ardo txoekin bete, limosna-poltsa pasatu, hiletan apaizaren aurretik egurrezko gurutze beltz luzea eskuetan gorpua eta jendea hilerrira gidatu eta abar. Dotore asko lagundu ere, sotana gorria eta liho

fin zuriarekin eginiko atorra manga-zabala jantzita.

Meza-lanak begiak ireki zizkigun. Nola ez, etxeko pagaz gain, meza baikoitzeko hamar pezeta haiek lehen dirupekoa zirenean eta binajeretako ardoarekin lehen esperientzia alkoholaduna izan genuenean. Harro esan genezake elizako sakristia izan zela gure lehendabiziko taberna.

Gogoan dut sakristiaren garbiketa sakona egiten ari ziren batean botilak nahastu eta mezatarako binajeran, ardo zuriaren orde, agoarrasa jarri genueneko. Noski, ardo kontuetan gu baino jantziagoak ziren apaizak, baina, be-deinkatua izan arren, trago hark ez zion

gorputzaldi onik utzi Benantxio gizagaxoari. Katalina serorak ere lanak izaten zituen gure atzetik...

Jolas hark urte pare bat iraun zuen, hain inozoak ez ginela... ez kristauak, bihurriagoak, ardozaleak, ostia-jaleak eta limosna-poltsan esku-sartu zaleak...

Bistan da apaizek ez zutela lortu monagilloak kristau bidean kateatzerik; aitzitik, jantziago atera ginen, eta ez preskeski sotana gorriarekin...

Garai magiko hartan aitor-lekutik bekatuak aitortzera inoiz pasatu ez baginen ere, gaur egiazko aitortza egitera natorkizue: meza amaieran kanta eza-gunak dioten bezala, “eskerrak... Jaungoikoari!”. •